

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

2213

IRAGARKIA, 2023ko maiatzaren 3koa, Arabako Industria Administrazioaren lurralde-ordezkararena, Lantarongo (Araba) udalerrian «2,1 MWn/2,62 MWp-ko Comunion II instalazio fotovoltaikoa, 30 kVko sarearekin lotura duena», egiteko proiektua jendaurrean jartzeko dena.

Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen IX. tituluaren eta Energia elektrikoa ekoizteko, garraiatzeko eta banatzeko instalazioen administrazio-baimenaren prozedurak arautzen dituen martxoaren 31ko 48/2020 Dekretuaren 10. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako (2020ko apirilaren 24ko EHAA), jendaurrean jartzen da proiektu hau:

- Eskatzailea: FV Comunion II, SL; IFK: B05312525; helbide soziala: Sotelo kalea 2, B, Zamora.
- Eskaera: alde zureko administrazio-baimena eta eraikuntza-baimena.
- Xedea: energia elektrikoa sortzea teknologia fotovoltaikoaren bidez.
- Erreferentzia: 01 GEY 202200010 «2,1 MWn/2,62 MWp-ko Comunion II instalazio fotovoltaikoko proiektua, 30 kV-ko sarearekin lotura duena»
- Instalazioaren ezaugarriak:
 - Lurrean dagoen planta fotovoltaikoa, 600 Wp-ko potentziadun 4.368 panel fotovoltaikok eta 11 inbertitzailek osatua (200 kW-ko 10 eta 100 kW-ko 1).
 - 3250 kVAko transformazio-zentro 1, hau da, egurats zabaleko transformadorea eta ETko gelaxkak, gainazalerako eraikin prefabrikatu trinko batean.
 - Gainazaleko eraikin aurrefabrikatua ETko gelaxken bidez ebakitzeko zentro bat.
 - Comunion II Parke Fotovoltaikoaren Sekzionamendu Zentrotik ebakutzeko linea elektrikoa. Zentro hori aireko eta lurpeko lotura bikoitzaren bidez lotuta dago. Banatzeko sarean, «LAMT – L1, Miranda – Puentelarra»n (65 eta 66 euskarrien artean).
- Instalazioaren potentzia: 2,1 MWn.
- Instalazio fotovoltaikoaren kokapena: 4. poligonoa, 796. partzela, Lantaron (Araba).
- Aurrekontua: 843.380,00 euro.
- Proiektuari ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatua egin behar zaio, Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 76.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Guztiek jakin dezaten ematen da argitara azaldutakoa, proiektua Arabako Industria Administrazioaren Lurralde Ordezkaritzan (Samaniego kalea 2, Vitoria-Gasteiz) edo Interneteko www.euskadi.eus webgunean (Energia eta Meategiak/Energia ataleko Proiektuen Jendaurreko Informazioaren atalean) aztertu ahal izan dadin (<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/energia-meategiak/>

hasiera/); horrela, egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango dira, hogeit eguneko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko maiatzaren 3a.

Arabako Industria Administrazioako lurralde-ordezkaria,
PEDRO RODRIGUEZ DIAZ.